

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Ostirala, 2012ko azaroaren 23a. IX. urtea. 2.439. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



**Inaxio Perurena** Harri jasotzailea

## «Entrenamendu baten moduan hartu nahi dut»

Leitzarra 300 kiloko harria altxatzen eta marka berria ezartzen saiatuko da hirugarren aldiz, etzi, herriko Amazabal pilotalekuan ◦6

## Lan duina eta eskubide sozialak aldarrikatuko dituzte mobilizazioen bidez

ELA eta LAB sindikatuek protestetan parte hartzeko deialdia egin diete herritarrei; Tolosan giza katea egingo dute hilaren 28an ◦2

## Sukaldaritza ikastaro berezia, Larraulgo Kultur Astea hasteko

Astelehenean hasiko dituzte kultur ekitaldiak; kimikari batek gidatuko du zientzia eta sukaldaritza uztartzen dituen tailerra ◦3

## Euskarazko Produktuen Katalogoa erabiltzeko deia egin dute

Tolosako Udalak gurasoei euskarazko produktuak erostera animatu die ◦2

## Festa giroa izango da Ibarren etzi, babarrunaren aitzakian

Hauspoa elkarteak antolatuta, babarrun jatea eta lehiaketa egingo dute ◦7

**PERMANENTERIK GABE, HOBETO**

TARIFA FINKO  
**Librea!**  
19,9€  
300MIN  
500MB  
IRAUPEN-KONPROMISORIK GABE

Tarifa finkorik merkeena, azkenean, iraupen-konpromisorik gabe.

180€

logika line EUSKATEL bonoak ofiziala

# Lan duinaren eta eskubide sozialen alde mobilizazioak deitu dituzte

ELA eta LAB sindikatuek egin dute deialdia; hilaren 28an giza katea egingo dute Tolosan

**Imanol Garcia Landa**

*Euskal Herria martxan* lelopean, Tolosaldeko eta Goierriko ELA eta LAB sindikatuek mobilizazioak iragarri dituzte, lan duinaren eta eskubide sozialen alde. Ez dute onartzen Hego Euskal Herrian bizi den errealitatea, eta berriro mobilizazioak egitea erabaki dutela adierazi dute, «politika publikoetan erabateko aldaketa gerta dadin aldarrikatzeko». Besteak beste, 220.000 pertsona lanik gabe dagoela gogorazi dute.

Hainbat eskari plazaratu nahi dituzte. Batetik, «aurrekontu, gizarte eta industria politikek enplegua sortu behar dute eta ez suntsitu», diote sindikatuek, eta zerbitzu publiko unibertsalak bermatu behar dituztela. Lan produktiboa zein erreproduktiboa banatzea eskatu dute. Espainiako Gobernuak Hego Euskal He-



LABeko eta ELAko ordezkariak, agerraldiaren une batean. iGL

rriko erakundeei «inposatu nahi dizkien murrizketak» ez aplikatzeko esan dute.

Bestetik, gizarte prestazioetan, hezkuntza sisteman, osasun arretan, etxebizitzan eta gizarte zerbitzuetan ezarritako murrizketak indargabetzea exijitu dute. Horrez gain, «gizarte prestazioak jasotzen dituztenak kriminalizatzeko joera» amaitu dadila esan dute.

Bestalde, zerga politika justu eta progresiboa aldarrikatu dute,

eta aukera berdintasunaren gaineko politikak, «emakumeen bizimodua hobetzeko aukera izan dadin». Lan harremanen eta gizarte babeseko euskal markoa eskatu dute, eta pentsioak «orain eta hemen» bermatzea.

Herritarrei kalera ateratzeko deialdia egin diete, eta hilaren 26tik 30era egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko; zehazki, Tolosan hilaren 28an eta Donostian hilaren 30ean egingo direnatan.

## ↓ Mobilizazioak

### TOLOSA

■ **Azaroak 28, asteazkena. 19:00.** Giza katea Trianguloa plazatik abiatuta.

### DONOSTIA

■ **Azaroak 30, ostirala. 19:00.** Manifestazioa Boulevardetik abiatuta.

## → Laburrak

### Karlos Peña, genero indarkeriaren aurka igerian

**TOLOSA** › Karlos Peña igerilari solidarioak beste ekimen bat egingo du. Oraingo honetan Extremadurako Plasencia (Espainia) herriko igerilekuan 24 orduz ariko da igerian. Genero indarkeriaren aurkako ekitaldia izango da. Larunbatean 12:00etan hasiko da eta igandeko 12:00etan amaituko du.

### Bizilagunak egitasmoaren amaiera ekitaldia

**GIZARTEA** › SOS Arrazakeria elkarteak Bizilagunak proiektua kudeatzen ari da Gipuzkoan. Aurreko igandean bertako familien eta etorkinen familien arteko bazkariak egin ziren. Tolosaldean zazpi bazkari egin ziren eta emaitza oso ona izan zela azaldu zuten. Igandean hontan, hilak 25, egitasmoan parte hartu duten Gipuzkoako familia guztiak Donostiako Kursaal aretoan elkartuko dira, Gipuzkoa Solidarioa 2012 ekitaldian. 17:00etan hasiko da eta ekitaldia nahi duten guztientzat irekita egongo da. Sarrera doan da eta haurtzaindegiz zerbitzua izango da.

# Euskarazko produktuak erostera animatu du udalak

Euskarazko Produktuen Katalogoa banatu du Tolosako eskoletan, eta gurasoei erabili dezatela eskatu die

**I. Garcia Landa**

Tolosako Udalak Euskarazko Produktuen Katalogoa erabiltzera animatu ditu gurasoak. Inaki Irazabalbeitia zinegotziak azaldu duenez, «haurren giro euskalduna ziurtatzeko kontuan izan dezatela katalogoa», eta Gabonak laster iritsiko direla gogora ekarri du. «Gure gizarte euskaldundu nahi badugu eta etorkizuneko euskaldun osoak nahi baditugu eta gure ingurunea euskalduna izatea nahi badugu, euskarak alor guztietan egon behar du», nabarmendu du Irazabalbeitiak.

Tolosako ikastetxeetan 3.500 ale banatu dituzte, «gurasoek erreferentzia bat izan dezaten euskarazko produktuak erosteko uanean». Egun hauetan etxean jasotzen den publikazio sortaren artean, Euskarazko Produktuen Katalogoari jaramon gehiago egiteko eskatu du Irazabalbeitiak. Katalogoan era guztietako produktuak daudela azaldu du: musika, filmak, informatika, aldizkariak, liburuak, jostailuak... Paperezko katalogoan ez daudela produktu guztiak zehaztu du eta eskaintza guztiaren berri izateko [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org) webgunean daudela gaineratu dute. Hainbat erakundek bultzatzen dute katalogoa: foru aldundiek, Eusko Jaurlaritzak eta UEMAK.

Euskararen Eguna aurki izango dela eta, udalak antolatu duen hitzaldi baten berri ere eman dute agerraldian. Hilaren 29an,



Inaki Irazabalbeitia zinegotzia eta Iñaki Azaldegi teknikaria, agerraldiaren une batean. iGL

19:30ean, Xabier Amurizak *Zazpi ebidentzia birjatorazako* hitzaldia emango du udaletxeko bilkura aretoan. «Hemendik aurrera euskara batuaren eboluzioa nola ikusten duen azalduko du», esan du Irazabalbeitiak. «Baditu ideia berriak, ideia bereziak, ausartak, eta ziur aski euskalgintzan aritzen direnentzako kitzikagarriak izango direnak, eta aldeko eta kontrako iritziak sortu ditzakeenak».

Bestalde, abenduaren 1ean Do-

nostian egingo den manifestaziora joateko deialdia egin du. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak antolatu du, *Euskaraz bizi nahi dugu* lelopean, eta Anoetatik 17:30ean aterako da.

### Beste herrietan ere bai

Villabonako Udaletik azaldu dutenez, herrian ere ikasleen artean banatuko dute Euskarazko Produktuen Katalogoa. Leitzan eta Areson ere datozen egunetan banatzen hasiko dira.

Berriki Aztiker enpresak egingo dako azterlan baten ondoren, zenbait emaitza esanguratsu atera dituzte. Esaterako, katalogoa banatzen den herrietako gurasoen %41k ezagutzen du, eta ezagutzen dutenek oso ondo baloratzen dute: 7tik gorako puntuazioa ematen diote paperezkoari bezala interneteko edizioari ere. Bestalde, gurasoen ia hiru laurdenak (%72,1) adierazi du produktuak erosteko erabili duela; guraso elebidunen kasuan %86,1ak.

## → Laburrak

### Antton Izagirre alkate ohia Kutzako kontseiluko kide

**TOLOSA** » Herenegun berritu zuten Kutzako administrazio kontseilua. Antton Izagirre kontseilu kideetako bat izango da, EH Bildu ordezkatzuz. Presidente karguan, ordea, Xabier Iturbek jarraituko du. Aukeraketak eztabaida sortu du.

### Lau t'erdiko finalerako bi sarrera zozketatuko dira

**ASTEASU** » Atzapar pilota taldeak lau t'erdiko finalerako bi sarrera zozketatuko ditu. Azaroaren 28ko, asteazkeneko, ONCEn zozketako azken hiru zenbakiek erabakiko dute irabazlea nor den. Irabazleak 943 69 47 00 edo 666 67 21 91 zenbakira deitu beharko du. Oinatz Bengoetxea leitzarrak jokatuko du finala. Bere aurkaria Irujo eta Olaziola II.aren arteko partida irabazten duena izango da.

### Sortu eratzeko batzarrak Tolosaldean, gaurtik hasita

**POLITIKA** » Sortu eratzeko batzarrak gaur egingo dute Gaztelun, 19:00etan. Bihar, Iruran 10:30ean kulturgunean; Zizurkilan, 10:30ean kultur etxean; Villabonan, 09:00etan kultur etxean; Anoetan, 10:00etan auditorioan; Tolosan, 09:30ean kultur etxean; Ibarren, 09:00etan kultur etxean eta Leaburun 16:00etan Gazte gelan. Igandean, Altzon egingo dute batzarrak, 10:00etan.

### Erabiltzen ez diren jostailuak bilduko dituzte

**GIZARTEA** » Aiztondoko Denbora Bankuak jostailu bikleta egingo du ondorengo egunean, etxean erabiltzen ez direnak biltzeko, eta beharrezan aurkitzen diren familien artean banatzeko. Jostailuak uzteko aukera Adunako liburutegian egongo da, azaroaren 27an 10:00etatik 11:30era, eta azaroaren 30ean, 17:30etik 19:00etara. Alkizan, hitzordua azaroaren 30ean jarri dute.

### Uzturre taldearen bilera irekia, hilaren 27an

**TOLOSA** » Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldeak bilera irekia egingo du azaroaren 27an, asteartean, 19:30ean Corpus Christi parrokiko lokaletan. Alkoholarekin eta bere ondorioen kalteak, eta osatzearen inguruan hitz egingo dute. Bilerara alkoholak kaltetutakoak eta euren senideak gonbidatu dituzte, baita gaiaren inguruan argibide gehiago nahi duen edozein herritar ere.

# Larraulgo Kultur Astea zientzia eta sukaldaritza uztartuz hasiko dute

Asier Imaz Aduna

Zientziak sukaldaritzan duen eragina eta erabilera aztertzen egingo diote Larraulgo Kultur Asteari, azaroaren 26an. Horretarako kimikari baten laguntza izango dute larrauldarrek.

Lehen egunari amaiera emateko, Larraulgo argazki diaporama ikusteko aukera egongo da kultur etxean.

Ondorengo egunetarako hitzaldiak, txakolin dastatzea, haurrentzako ekitaldiak... antolatuko ditu Kultura Batzordeak. Herri

afaria ere egingo dute azaroaren 30ean, ostiralean. Bertara joan nahi dutenei, izena aurrez emateko eskatu diete antolatzaileek. Zerrendak elkartearen eta Herriko Ostatuan daude, eta hiru hilaren 28an, asteazkenean, 21:00etan amaituko dela azaldu dute.

## ↓ Egitaraua

### AZAROAK 26, ASTELEHENA

- **17:30.** Katillu Txulo elkartearen zientzia sukaldaritzaz ikastaroa. Zuzendari lanetan kimikari bat ariko da.
- **19:30.** Larraulgo argazki diaporamaren erakusketa, kultur etxean.

### AZAROAK 27, ASTEARTEA

- **19:30.** *Belarriak soinu* hitzaldia, Joseba Tapiaren eskutik, kultur etxean.

### AZAROAK 28, ASTEAZKENA

- **18:30.** Larraulgo argazki diaporama eskainiko dute, kultur etxean.
- **19:30.** Bixente Serrano Izkok hitzaldia eskainiko du kultur etxean. *Nafarroaren konkista, 500. urteurrena* izenpean.

### AZAROAK 29, OSTEGUNA

- **19:00.** Txakolin dastatzea Maitena Barrero enologoaren eskutik, Katillu Txulo elkartearen.

### AZAROAK 30, OSTIRALA

- **17:00.** Umeentzako merienda. Ondoren eskulanak, Katillu Txulo elkartearen.
- **19:30.** Juan Mari Beltran hirukotearen Euskal Herriko musika eta soinu tresnak emanaldia, San Esteban elizan.
- **21:00.** Aferia eta bakarrikzeta saioa Katillu Txulo elkartearen. Izena elkartearen edo Herri Ostatuan eman behar da, azken eguna azaroaren 28a izango da.

### ABENDUAK 1, LARUNBATA

- **09:30.** Dina 7 taldeak menditik egurra jaitsiko du herrira, idien laguntzarekin.

- **13:00.** Bolatoki ondoko mura-laren aurkezpena.

- **16:00.** Mus txapelketa Katillu Txulo elkartearen.
- **16:30-18:00.** Aho soinu erakusketa museoan, eta Larraulgo egutegiko argazkien aukeraketa.

### ABENDUAK 2, IGANDEA

- **10:00.** Mendi irteera herria ezagutuz.
- **16:00.** Pilota partidak frontoian.
- **16:30-18:00.** Aho soinu erakusketa museoan, eta Larraulgo egutegiko argazkien aukeraketa.
- **18:00.** Talo eta gaztaina jatea Katillu Txulo elkartearen.



Adunan Ormaetxea eta Iparragirre nagusitu ziren. HITZA

## Euskal Herriko Mus Txapelketa, Alegian

A. Imaz

Euskal Herriko Mus Txapelketa kanporaketak azaroaren 10ean hasi ziren eskualdean. Berrobin, Iñigo Zabala eta Jon Ander Aierbek irabazi zuten herriko kanporaketa, ondorioz, herrialdeko txapelketa jokatuko txartela lortu zuten. Adunan, hilaren 16an, jokatu zuten kanporaketa. Bertan, Iñaki Ormaetxeak eta Aitor Iparragirrek lortu zuten txapela, lehian aurrera jarraitzeko eskubidearekin batera. Bigarren postuan, Ekaitz Otegi eta Xabier Agirre sailkatu zuten. Kultur Astearen barruan antolatuko zuten

Adunako kanporaketa, eta giro paregabea izan zela azaldu dute mus txapelketaren antolatzaileek, Bai Euskal Herriariko kideek.

Herrialdeko kanporaketa Seguran jokatuko da, otsailaren 23an.

Eskualdeari dagokionez, Adunaren lekukoa Alegiak hartuko du, azaroaren 24an, bihar, 16:00etatik aurrera, Hilario tabernan.

## ↓ Iragarki laburrak

### SALGAI

**Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Alegian (garajea barne). 8 urte eta oso egoera onean. Sukaldea eta bi komunak guztiz ekipatuta, hiru logela eta egongela ditu. Guztia kanporantz begira eta oso eguzkitsua da. Igozailua du zuzenean garajera jaisteko aukerarekin (prezioan bi plaza-tako garajea barne dago). Interesatuek 609787551 telefono zenbakira deitu, edota [alegi2012@yahoo.es](mailto:alegi2012@yahoo.es) helbidera idatzi.

### LANESKAERAK

**Etxeko lanetarako.** Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Deitu 943 696882 edo 606 521992 telefono zenbakietara.

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**EDARITEGIA**  
**Egarrri**  
**OSTIRALEKO MUS TXAPELKETA**  
**23:00ETAN**

**SARIAK**

1. saria: bidarño diruaren 9500  
2. saria: bidarño diruaren 9500  
3. saria: bidarño diruaren 9500  
4. saria: 2 ardi botila

\*SEPI OSTIRAL JARRAIAIN SUARAZI GERO  
SARTU JATEXTEAN  
BI PERTSONENTRANO OTZURDUA

ERNOBIDEA, 7 ZIZURKIL Tel.: 943 69 62 57

# HIRU HAMARKADAKO JOAN-ETORRIAK, OHOLTZARA

**Itzaia Urkizu**  
Joan eta etori. Denbora egiten duela esan ohi da. Eta bai, Titirjai hasi zenez gerotik, hamaika joan-etori egiti ditu denborak; izan ere, bilaz bertan hasi da, 30. aldiz, Tolosako Nazarioetako Txotxongilo jaialdia.

Denbora gaiti, ordea, txotxongiloak ere izan dituzte joan-etorriak, eta hauek izango dira, abenduaren 2ra bitarte luzatuko den Titirjaiako protagonista: *Joan-etorriko txotxongiloak*.

Ozaso Atlantikoaren bi aldeetan txotxongilolaritzak, aurreko mendez gozotik, hartu ditzaen adar eta bidetik aldatzeko eta aztertzeko modua izango da aurtengo Titirjai.

Lana nahiz politikagatik Hegoameriketara erbestera behar izan zuten zenbaitek txotxongilolaritza taldeak sortu zituzten Teiko hamarkadan, beren jaioterietara itzuli zirenean.

Topic zentroko eta Tolosako Ekialdeko arduradunek azaldu zutenen, Federico Garcia Lorcak ere txotxongilolaritza gria sortu zuen Atlantikoko alde banatan, *cachiporra* paupararen.

Horrela beraz, txotxongilolaritza batek bestea izango izan duen

eragina ikusi ahal izango da, bihurtik aurrera. Argentinetik, Brasiletik, Koloniatatik eta Uruguaitik bertaratutako konpainiak ariko dira, Hegoameriketako txotxongilolaritza ordezkatuz.

Ozasoaren alde honetatik, berri, Espainiako, Herrialde Katalanetako nahiz Euskal Herriko konpainiek parte hartuko dute.

Aurkezpen ekitaldian azaldu moduan, murrizketa nabarmenak jasan dituzten Txirrijai jaialdia, eta Tolosa 40 emanaldi gozatzeko aukera izango da, 12 konpainiaren eskutik.

**SOS Titellesen zoketa**  
SOS Titelle konpainiak burutzen dituen ekitaldian jarri diekin bat egitago du Tolosako Txotxongilo Nazarioetako Titirjai jaialdia.

Herrialde Katalanetako talde hain artesen, kulturaren nahiz giza-teen eragina izan dezaketen hainbat arlotan artizan da, eta errek bertutako haru txotxongilo zoketatik dator.

Topic zentroko dendan ikusgai izango dira paupinak, bihurtik datorren abenduaren 2ra bitarte, eta zoketan parte hartzeko txartelak, bost euroko prezioa izango dute.



**ROBERTO WHITE (1. IRUDIA)**

- **Argentina.** *Criaturas particulares* hitzik gabeko ludi duna lana da. Poetikotasuna eta umorea daramatza, eta mimesisaren bidez 5 urteko aurrealari kuzentzako emandako da.
- **Emanaldiak.** Etzi 11:00etan Leidorren, sailo irekia. Astazkenean 11:00etatik 14:00etara, Topic-en, ikasleentzat, eta 18:00etan, Topic-en, sailo irekia.

**TEATRO DELA PLAZA (2. IRUDIA)**

- **Brazil.** *Mago por casualidad* eskainiko dute, magia, txotxongiloak eta errobota uztartuz. Historiko magoel eta trikimal-luei omenaldia egingo dute.
- **Emanaldiak.** Astelehenean Topic-en, eta asteartean kultur etxean, 11:00etatik 14:00etara, ikasleentzat emanaldiak, Astazkenean 18:00etan, Topic-en, sailo irekia.




**MANICOMIO DE MUÑECOS (3. IRUDIA)**

- **Kolonia.** *Cuidado con la Marimonda* kuzantzuak Marimondaren kondairak du oinarrian. Ordu beteko emanaldian, erreketan bizi den, eta mendi eta ibaiak zaindu nahiz babesteko lana duen emakume misteriosua protagonista izango da.
- **Emanaldiak.** Azarok 30ean, 11:00etatik 14:00etara, Topic-en, ikasleentzat sailoak. Eta 18:00etan sailo irekia, Topic-en.

**ANGELES DETRAPO (4. IRUDIA)**

- **Uruguay.** *Viejos del carnaval* eskainiko dute, Camille Saint-Saënsen 1868an idatzitako *El carnaval de los animales* pertsonaia eta abantutza. Zuzeneko musika lagunduta, txotxongilo automatik erabiliz en ditzute.
- **Emanaldiak.** Bihar sailo irekia, 20:00etan, Topic-en, Astelehenean, kultur etxean, 11:00etatik 14:00etara, ikasleentzako.



**MASKA**

Barneak 2012

2012ko azararen 23a, ostirala

23€



**CARACARTON (5. IRUDIA)**

- **Espainia (Andaluzia).** Chodudu kuzantzu bera produktu magiko da, ukitzen dituen pertsonak leundu, atsegin bihurtu eta ikasitako ino baretzen ditu.
- **Emanaldiak.** Ostegunean, hilak 29, 11:00etatik 14:00etara, Topic-en, ikasleentzat sailoak. Eta abenduaren 2an, 17:00etan, Leidorren, sailo irekia.

**TITIRTEROS DE BINEFAR (6. IRUDIA)**

- **Herrialde Katalanak (Aragoi).** 1989an estreinatutako *El bandido cucarach* berreskuratu dute.
- **Emanaldiak.** Hilaren 30ean, 11:00etatik 14:00etara, Leidorren, ikasleentzako emanaldia. Abenduaren lein, 17:00etan, sailo irekia.



**ROSA MARTINEZ (7. IRUDIA)**

- **Euskal Herria.** *Etxean goxolanean* sagu bat da protagonista. Rosa Martinezek bere 20. urteurren ospatzen du emanaldi honetan.
- **Emanaldiak.** Hilak 29, 11:00etatik 14:00etara, ikasleentzako sailoak, kultur etxean.

**ANITA MARAVILLAS (8. IRUDIA)**

- **Euskal Herria-Txile.** 20ko hamarkadara bidaiatuko dute *Blue Bird* zineko istorioa kontatuz.
- **Emanaldiak.** Asteazkenean, 11:00etatik 14:00etara, Leidorren, ikasleentzako sailoak. Ostegunean, hilak 29, 11:00etatik 14:00etara, ikasleentzako sailoak, Leidorren.




**BIHARTXOTXONGILO TALDEA (9. EMANALDIA)**

- **Euskal Herria.** Homeroren testuak jarraituz, *La Odisea* kuzantzuaren Ulisesen abenturak hipodize izango dira. Toloako gudua amaieratik abiatu, eta hainbat urte gerago Itakara iritsi arte.
- **Emanaldiak.** Polifonikoki izandako istorioa, nahiz Poseidoni itasako erregek egin zion eraso oholtzara eramango dituzte talde euskalunak txotxongilo bidez, besteak beste. Itakara iristen denekoa ere antzezgai izango dute.
- **Emanaldiak.** Asteartean 11:00etatik 14:00etara, Topic zentroan, ikasleentzako sailoak.

**TEATRO DE TITERES LOS DUENDES (10. IRUDIA)**

- **Herrialde Katalanak (Valentzia).** *Mikro* obraren estreinaldia bikotizta izango da, bere lan egiteko modua ere berritu baitute kuzantzu honetan. Oholtzan oso ballabide gutxi erabiltzen dituzte, eta hitz egin gabe sortu dute emanaldia.
- **Emanaldiak.** Hilaren 30ean, 11:00etatik 14:00etara, kultur etxean, ikasleentzako sailoak. Eta abenduaren lein, 18:30ean, Topic-en, sailo irekia.



**LUNA TEATRO DANZA (11. IRUDIA)**

- **Espainia (Madrid).** *Cincuenta y tres zaparrillos de cristal* istorioarekin, Perraultek idatzitako Mariarauruskinen ipuin klasikoari bira bat emango dute. Izan ere, Mariarauruskinek bere amaren kristalezko zapatekin amestuko du gauero.
- **Emanaldiak.** Astelehenean, 11:00etatik 14:00etara, Leidorren, ikasleentzako sailoak. Asteartean, 11:00etatik 14:00etara, Leidorren, ikasleentzako sailoak.



**TEATRO LOS CLAVES (12. IRUDIA)**

- **Espainia (Murtzia).** *Siete carbillos y el lobo* lanetan zappi antzumenaren ipuin argipain bidez interpretatzen dute txotxongilo sinpleen bitartez.
- **Emanaldiak.** Etzi, 18:30ean, Topic-en, sailo irekia. Hilak 29an, 11:00etatik 14:00etara, kultur etxean, ikasleentzako sailoak. Abenduaren 2an, 18:30ean, Topic-en, sailo irekia.



**BUKI**

leopoldo egia

2012ko azararen 23a, ostirala

23€

**AZAROKO EKINTZTA BEREZIA!**

-25% kolorea+orraztu

**Irudi LEOPOLDO EGIA**

**sarrerak**

**Kilometroak 2013 - aurkezpen ekitaldia**

18:00etako saioakoa sarrera pare bat: Sagarino Sorondo (Iruia)

20:00etako saioakoa sarrera pare bat: María Jesús Aranzabe Urrozola (Tolosa)

\*Azarok 23 / Tolosako Leidor aretoa

**TXOKOR hitza**

Sarrerak ikasleentzako berraketa dituzte. Hainbat sarrera dituzte. Hainbat sarrera dituzte.

**Inaxio Perurena** ◦ Harri jasotzailea

Gerrian izandako mina atzea utzi ostean, harri jasotzaile leitzarra marka berri bat ezartzen ahaleginduko da, etzi, Amazabal pilotalekuan; 300 kilokoa altxatzea du xede.

# «Gurea muturreko lana da, beraz, jasoaldia ongi ala gaizki irten daiteke»

**Iñigo Terradillos** Leitza

Inaxio Perurena harri jasotzaile leitzarra bere marka hobetzen saiatuko da etzi, Leitzako Amazabal pilotalekuan, 12:30ean hasiko den jaialdian. 300 kiloko harria mendean hartzea da bere erronka.

## Nola ikusten duzu zure burua etziko saioaren aurrean?

Nire barrualdean urduritasun pixka bat hasia naiz somatzen, igandea geroz eta gertuago baitago, baina, saiakerari ekiteko gogotsu nago.

## Zerk urduritzen zaitu bereziki?

Bi gauzek kezkatzen edo urduritzen naute: batetik, kontuan hartu behar da muturreko lana dela egin behar dudana, eta entrenamendu oso onak izan ditudan bezala, txarrak ere egon dira. Beraz, urduri jartzen nau plazako egunean txarretako bat egokitzeak. Bestetik, denbora askoan zainitzen eta entrenatzen egon eta gero, jasoaldiko 20 segundoetan guztia gaizki edo ongi atera daiteke. Jasoaldiko une horretan urduritasun edo kezka hori ez sentitzea ezinezkoa da.

## Ze faktoreen arabera atera daiteke proba ongi ala gaizki?

Batetik, esan moduan, muturreko proba bat da. Harri hori jasotzeko gorputzak %100ean egon behar du, pertsona batek ezin baititu 300 kilo nolana jaso. Denbora askoan egon behar duzu presatzen, gorputza ohitu behar duzu kiloak maneiatzen. Bestalde, kiloak maneiatzen zabiltzanean, beti arazoak izaten dira, belaunean edo gerrian gainkargak, esaterako. Beraz, egun horretan, guztia ongi eduki behar duzu, jasoaldiko puntu guztiak zehaztasunez egin behar dira, arnasa kontrolaturik atera behar da... Baina, plazako egunean, eguna beragatik, jende askoz inguratutik zaudelako, urduritasunarengatik, puntu askotan huts egin dezakezu.

## Zer egin proba lasaitasunez egiteko?

Marka ezartzeko horrelako saiakeretan oso gaizki pasatzen dut, urduri jartzen bainaiz. Igandeko proban zera nahiko nuke, plazara joan, eta eguneroko entrenamendu baten moduan hartu. Ez dut igandean guztia erabaki edo bukatzen dela bezala hartu nahi, horrek gehiago urduritzen bainau. Beraz, beste entrenamendu baen



IT.

moduan hartuko dut, eta ea horrela lasai joaten naizen, eta lan ona eginen dudana.

## Entrenamenduetan gustura geratu al zara zure buruarekin?

Bai. Entrenamendu oso onak egon dira. Baina, lehenago esandakoari gehitu beharra dago udan hernia diskalarekin egon nintzela. Ondorioz, erakustaldi guztiak bertan behera utzi beharra izan nituen. 200 kiloko harria altxatzerik ez nuen entrenamenduak ere izan ditut, eta hortik 300 kilora iristeko pisu ugari altxa beharra dago gimnasioan. Pisuetan kilo ugari mugituz gero, baina, beti duzu arriskua lesio txikiak izateko. Beraz, entrenamendu oso onak izan ditut, baina tartean ere egon dira gainkargak edo lesio txikiak.

## 300 kilokoarekin eginak dituzue saioak gehiago.

2009an egin nuen ahalegina 300 kilokoarekin Asteasun. Jasoaldia ongi joan zen: gerrian bueltatu, hiru kolpe, eta bizkarrean berdindu nuen, baina, erori egin zitzaidan harria. Beraz, hori ez zen balakoa izan. 2010ean prestatzen

hasi nintzen, baina beste arazo batzuk tarteko, ez nintzen ahaleginerako eguna eta ordua jartzera iritsi. Pasa den urtean, marka ezartzeko ahaleginerako eguna jarria nuen, abenduaren 8rako. Bi aste baino ez zirenean geratzen, jakiren batek kalte eginda edo, gastroenteritisak jota egon nintzen, eta horren ondorioz indar ugari galdu nuen, eta bertan behera utzi beharra izan nuen saiakerara.

## Leitzako Amazabal pilotalekuan ariko zara. Etxean aritzea onerako ala txarrerako da?

Garrantzitsua da etxean aritzea. Nik uste dut kirolari guztientzat, norbere herrian aritzean beste zirrara bat sentitzen dela. Besteak beste, ikusleak ezagunak dituzulako. Esaterako, etziko proban ikusten egongo direnetako askok nire markaren jarraipena egin dute, zer moduz nagoen galdetuz joan dira, entrenamenduak bizitu dituzte...

## Igandean marka ezarriko gero, zein izango da hurrengo erroka?

Gerriak ondo erantzuten didan formula bat aurkitu dut. Aste ha-

sieratik ostegunera arte pisuekin egiten dut lan. Ostiralean eta larunbatean atsedean aktiboa delakoa egitea dut, lutzate-ariketekin, eta asteburuan harriarekin entrenatzen dut. Formula honekin gustura entrenatzen dudala ikusi dut. Ez nago entrenamenduak utzi eta erakustaldiak egiteko, ba-

## «Beste entrenamenduetan moduan hartu nahi dut, eta ea horrela lasai egiten dudana»

## «Gerriak ondo erantzuten didan formula aurkitu dut, eta oso gustura nago»

dakidalako gerriak ez duela ondo erantzungo. Beraz, nire entrenamenduekin jarraituko dut, ahal dudanera iritsi arte.

## Haurra baino ez zinenetik ezagutu duzue zuk harria.

Bost urte nituela atera nintzen lehendabizikoz plazara. Hamabi urte nituela hasi nintzen aitarekin erakustaldi guztietara joaten, eta geroztik, aurtengoa kenduta, ez dut uda bakar bat ere izan erakustaldirik gabe. Aurtengo Leitzako festetan erakustaldirik egin gabe egotea oso arraroa izan da. Izan nuen gerriko mina kontuan hartuta, mementoren batean ere pentsatu nuen ez nintzela berriro marka berriak ezartzeko gai izango. Oso une txarrak igaro ditut. **Gainerako harri jasotzaileen artean zer moduzko harremana duzue?** Guztiok ezagutzen dugu elkar eta denok dugu elkarren berri. Eskertu ere egin nahiko nuke, gainera, izan ere, harri jasotzaile askok eman didate babesa gerriarekin arazoak izan ditudanean.

## SAMeko langileek greba mugagabea bertan behera utzi dute

Datorren urtera begira zuzendaritzarekin akordio batera iristeko asmoa dutela azaldu du LABeko ordezkariak

## I. Urkizu

Joan den azaroaren 12an hasitako greba mugagabea bertan behera utzi dute, Tolosalako SAM enpresako langileek.

LAB sindikatuko ordezkariak azaldu duenez, langileen batzordeak «onartu egin behar izan du» zuzendaritzak egindako eskaintza: «Ostiralean elkartu ginen eurekin, eta itsu-itsuan agertu ziren, ezertarako aukerarik eman gabe, eurek eskaintakoari baka-rik begira».

Horrela, beraz, kaleratutako langile bakoitzari 3.000 euro emango dizkio SAMeko zuzendaritzak. Gogoratzekoa da, kaleratu guztiak enpresan akzioak zituztela, eta bakoitzari 15.000 euro zegozkiola; zuzendaritzak, ordea, kalte-ordaineekin batera, 12.000 euro bakarrik eskaini zizkien hasiera batean, eta azken negoziaketan ondorioz, «langile bakoitzak jasoko ditu 15.000 euroak», azaldu dute.

LABeko ordezkariak, jendea lanera itzultzeko asmoz zela azaldu du: «Horrelako kasuetan indarrak bukatu egiten dira, eta gainera, lanera ez baginen sartzen, kaleratuei ez zizkieten 3.000 euro horiek emango».

Honen aurrean, langile batzordea 2013. urtera begira dago orain. Izan ere, lantegiko bulegoetan sistema informatiko berria ezarri dutela azaldu du LAB sindikatuko ordezkariak, eta ondorioz, kaleratze gehiago izango direnaren beldur dira: «Ez dugu konfidantza gehiegirik zuzendaritzarekin, eta beraz, hamabost egun barru-edo, eurekin bilduko gara, eta ea zer bait lortzen dugun behintzat».

**ANOETAKO UDALA**

**Azaroak 25: Indarkeria Sexistaren Aurkako Eguna**

EMAGARRIEN GAIARAZO  
INDARRAREN EZ

ET ISILAN  
EUREKIN BILDUKO GARA

Herriko plaza 2/g + 943 651 200 • udala@anoeta.net  
www.anoeta.net



Urtero bezala, jai giro polita izango da Ibarren igande goizean. HITZA

# Babarrun jatea eta lehiaketa egingo dute etzi, Ibarako Belabieta pilotalekuan

Lehenengo urtez gaztetxoaren arteko Sokatira Txapelketa egingo dute, Hauspoak antolatutako festan

**Iñigo Terradillos** Ibarra

Festa giroa izango da nagusi etzi goizean Ibarren. Izan ere, Hauspoa kultur elkarteak beste urte batez babarrun jatea antolatu du, eta horren inguruan hainbat ekitaldi gozatzeko aukera izango da.

Batetik babarruna plater nagusi izango duen bazkaria izango da Belabieta pilotalekuan. Bertarako txartelak Zubiaurre, Txumitxa, Sendi-Ekintza eta Atari tabernetan eskura daitezke 15 euroan (16 urte bitartekoek 4 euro).

Etziko beste pisuzko ekitaldia herritarren parte hartzea helburu duen Lehiaketa Gastronomiako da. Hirugarren urtez egingo

dute aurten; ibartarrek parte hartu ahaliko dute, banaka nahiz bikoteka, eta gehienez 22 parte hartzaile izango ditu.

Hauspoak babarrunak, sua eta ura jarriko ditu, eta sukaldariak gainerakoa. 09:00etan hasiko dira babarrunak prestatzen, eta 13:00etarako aurkeztu beharko diote platera epaimahaiari. Parte hartzaile guztiei bazkaria dohain eskainiko zaie, eta irabazleei txapela eta Danon Txokoa tabernan 100 euroko gastua egiteko aukera emango zaie.

## Sokatira Txapelketa

Bestelako osagaiak ere izango ditu Hauspoa elkarteak antolatutako jaiak. Giroarte dultzaina taldearen doinuek alaituko dute giroa, eta merkatari elkartearen ekimenez, pintxo potea ere izango da.

Horrez gain, estreinako urtez, haur eta gaztetxoei zuzendutako Sokatira Txapelketa ere egingo dute, Ibarako Sokatira Taldeak

## ↓ Egitaraua

### HILAK 25, IGANDEA

- **09:00-13:00.** Babarrunaren III. Lehiaketa Gastronomikoa, Belabieta pilotalekuan.
- **10:00.** Giroarte dultzaina taldearen diana.
- **11:00.** Ibarako I. Haur eta Gaztetxoaren Sokatira Txapelketa, Belabieta kiroldegian.
- **11:00-14:00.** Pintxo potea, Ibarako merkatari elkartearen eskutik, Belabieta pilotalekuan.
- **14:30.** Babarrun jatea, Belabieta pilotalekuan.

antolatuta. 8 urtetik 14 urtera bitarteko ibartarrek, neskek zein mutilak, parte hartuko dute. Taldeak zortzi kidez osatuak egongo dira, eta pisuaren arabera orekatuko dituzte. Uzturpe ikastolan, kultur etxean eta Zubiaurre eta Sendi Ekintzan eman ahaliko da izena.

## Irudia ◊ Tolosa



## GARITANO TOLOSAN

Herritarrekin egitasmoaren barruan, bigarren izan da Tolosan Martin Garitano Gipuzkoako ahaldu nagusia. 50 herritar ingururen aurrean 2012ko aurrekontuen balantzea eta 2013koen proposamena aurkeztu zuen herenegun. Herritarrek, bestalde, euren kezak eta zalantzak plazaratu zizkioten. Egitasmo honek herritarren partzea eta Foru Aldundia gerturatzeko du helburu. IT.

## Irudia ◊ Aduna



## MUSIKAREN OMENEZ

Xexili Egunaren harira, hainbat herritan musikarekin atera ziren kalerak eskualdeko musikariak. Adunan, esaterako, —irudian— herrian zehar kalejira egin zuten dultzaineroek eta trikitilariek. Alegian, Alton, Anoetan, Ibarren, Iburan, Tolosan, Villabonan eta Zizurkilen ere musika doinuak izan ziren musikaren omenezko egunean. EMAIZ

## ◉ Hilberriak eta urteurrenak

### ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



**JOXI FERNANDEZ DE ANTONA PEDRERA**

*Ez agurrik ez adiorik, gero arte baizik.*

**Alegia, Amezketak, Bidegoian eta Legorretako zure lankideak.**

Alegian, 2012ko azaroaren 23a

### -Esker onak-



**Alfonso Bizkarrondo Leunda**

Eskerrak herenegun hileta elizkizunera bildu zineten guztiei. LARUNBATA 24, arratsaldeko 19:00etan, meza elizkizuna izango da bere arimaren alde, Tolosako SANTA MARIA parrokiaren.

Tolosan, 2012ko azaroaren 23a



### -ESKERTZA ETA MEZA-

**CONSOLACION ROTETA MAIZ**

Bere familiak asko eskertzen dizuete samin-agurra bidali zenutenei eta baita bere hiletara etorri zineten guztioi, eta gonbidatzen zaituztete bere arimaren alde egingo den mezara, IGANDEAN, goizeko HAMARRETAN, Alkizako TOURSEKO SAN MARTIN parroki elizan.

Alkizan, 2012ko azaroaren 23a



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitateak:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoetaldeak:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarraldeak:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info  
**Alegialdeak:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitzaldeak:** 687 410 118. leitzalde@hitza.info

Tolosa Herria  
Hedabideak  
SM-ko kideak:

BERTAKO  
HEDABIDEAK



Galtzaurdi  
euskara  
taldea



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

Hitza-k  
Bai  
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketak, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalaiztaz argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

## Agenda

### INDARKERIA SEXISTAREN AURKAKO EGUNA

- **Anoeta.** Gaur, 18:00etan, *La luna en ti, un viaje a las raíces de la feminidad y de la vida* dokumentala, Mikelasagasti auditorioan.
- **Leitza.** Gaur 11:00etan, mahai informatiboa eta txapak egiteko aukera izango dira. Bihar, emakumeentzako ahalduztze tailerra izango da Erletan, 10:00etatik 13:00etara. Ondoren, luntxa izango da. Etzi, 12:00etan elkarretaratzea Lopeneko atarian, eta 16:00etan, Pala Txapelketa.
- **Zizurkil.** Gaur 19:00etan elkarretaratzea egingo dute Joxe Arregi plaza.
- **Tolosa.** Gaur *Neskeraz* emanaldia izango da kultur etxean, 22:30ean. Bihar, 12:30ean, Bel-dur barik flashmoba Triangulokan; 13:30ean, giza katea; eta 14:00etan, Iturririk plaza izen aldaketa *Emakumeon plaza* plaka oroigarria erakutsiz.
- **Alegia.** Hilaren 25ean, igandean, 18:30ean, elkarretaratzea egingo dute plazan, eta 19:00etan *Neskeraz* antzezlan izango da, kultur etxean.
- **Alegia.** Astelehenean, 19:10ean, emakumeenganako kontrako indarkeriaren aurkako adierazpen instituzionala irakurri eta onartuko da udal batzarrean.

### DEIALDIK

- **Ikaztegieta.** Kulturaldiaren barruan, etzi, DBH4ko ikasleek antolatuta, 12:00etan, bigarren eskuko azoka izango da herriko plazan. 13:00etatik aurrera, ta-loak, ogitartekoak, sagardoa eta postreak jateko aukera ere eskainiko dute. Horrez gain, argazki zaharren erakusketa izan-

go da, eta 14:00etan *Ezetxasmatu zeintzuk diren* lehiaketa egingo dute.

- **Alegia.** Hilaren 26ean, astelehenean, 17:00etan, Eñaut Gorbea ipuin kontalaria izango da liburutegian.
- **Larraul.** Kultur Astearen barruan, astelehenean, hilaren 26ean, zientzia sukaldaritza ikastaroa egingo dute, 17:30ean. Zuzendari lanetan kimikari bat ariko da, Katillu Txulo elkartearen. 19:30ean, Larraulgo argazki diaporamaren erakusketa izango da, kultur etxean.
- **Tolosa.** Tolosaldea Garazte-nek ekintzailetasuna eta ideia negozio berriak bultzatzeko tailerra antolatuta du *KM. O. Langa-bezian nago*. Ekinlelopean. Azaroak 27 eta 28 izango da, 09:00etatik 13:00etara, Tolosako musika eskolan. Izena emateko epea hilaren 26an amaituko da. Informazio gehiago eskatzeko edota izena emateko Tolosaldea Garazte-neko Autoenplegu Sailarekin jarri behar da harremanetan: [zubeldia@tolosaldea.net](mailto:zubeldia@tolosaldea.net) edo 943 65 45 01 telefono zenbakira deituz.

### MENDI ASTEAK

- **Asteasu.** Mendi Astearen barruan, gaur, 20:00etan udal-etxean, Posin Productionsi esker lortutako emanaldi saritua: *Asgard Project*. Bihar, 10:00etan, BTT irteera eta txirindu buelta familiarra gazte asanbladak antolatuta, plazatik abiatuta; 16:00etan, BTT irburuzko emanaldia, udaletxeko aretoan edo haurrentzako jolasak, frontoian; 18:00etan, disko martxa, koreografiak... frontoian, gazte asanbladaren eskutik. Eta etzi, lau ordu inguruko mendi irteera erraza oinez, plazatik abiatuta,

08:30ean; menditik korrika, hiru ordu inguruko ibilbidea, plazatik abiatuta, 09:30ean; ibilaldi familiarra, plazatik irtenda edota menditik korrika, 7 km inguru, 10:30ean; eta ondoren, herri festa Asteasuko plaza inguruan. Besteak beste, txerri erre dastatzea, musika eta jolasak egongo dira.

- **Villabona.** Aizkardiren 29. Mendi Astearen barruan, gaur, Aizkardi mendi taldearen urteroko irteera eta V. Argazki Rally-ko sari banaketa, 20:00etan. Etzi, ibilaldia Olaederrak abiatuta. Ondoren, bazkaria.

### MUSIKA

- **Tolosa.** Bonberenean Mikel Markez eta Erramun Martikorena musikariaren kontzertua izango da, gaur, 22:30ean.



- **Tolosa.** Bihar, hilak 24, Bonberenean *Euritan* proiektua: Txoan Ormazabal, Eneko Aranburu eta Desordutan. Musika eta literatura batuko dituzte 22:30ean.
- **Tolosa.** Bihar, hilak 24, Tolosa Kantari kantu jira egingo da Tolosako alde zaharreko kale eta plazetatik barrena. 12:00etan, Tontokale plazaxoan elkartzeko dira. Arantxa Yugueros gidari eta Isidro Larrañagaren akordeio taldea lagun dituztela.

- **Tolosa.** Bihar, hilak 24, Santa Xexili eguna ospatzeko kontzertu berezia eskainiko du plazan Isidro Larrañaga orkestrak, Euskal Herria plazan, dantzariak eta Elene Arandia eta Ander Zubillagarekin, 19:00etan.

### ZINEMA

- **Tolosa.** Gaur, 22:30ean, *iAtraco!* filma izango da, Leidor aretoan. Bihar, 19:30ean, *7 días en la Habana*, jatorrizko bertsiotan, eta 22:30ean, *Hard Candy* eta *Barbie Girls* jatorrizko bertsiotan izango dira. Azken biak doan ikusteko aukera izango da. Etzi, 19:30ean eta 22:30ean, *iAtraco!* filma eskainiko dute. Astelehena, ikuslearen eguna, 20:30ean, *7 días en la Habana*.

### TXOTXONGILOAK

- **Tolosa.** Titirijai jaialdia bihar hasiko da, eta abenduaren 2a bitartean izango da. Ikusi egitarau osoa 4-5 orrialdeetan.

### ERAKUSKETAK

- **Alegia.** Jose Luis Albisuren margolanak, erretirodunen tabernan.
- **Larraul.** Koldo Jauregiaren aho soinuen bilduma, museo etnografikoan, eta Karmele Pellejeroen margolanak, herriko ostatuan.
- **Ibarra.** Felix Urrestarazuren margolana, kultur etxean.
- **Tolosa.** Mariona Masgrauren lanak Topic zentroan eta Guatemalako lxil eskualdeko emakumeen inguruko erakusketa, Aranburu jauregian.
- **Villabona.** 5. Argazki Rallyko argazkien erakusketa Gurea zinema aretoan. Gaur egingo dute sari banaketa ekitaldia, 20:00etan.

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28. Gauekoa: Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar Kalea 43. Telefonoa: 112.

### BIHAR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar Kalea 43. Telefonoa: 112.

### ETZI

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Azpiroz Galarza, L. Amarrotz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 38 49.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar Kalea 43. Telefonoa: 112.

### ETZIDAMU

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Morant, R. Zabalarreta lorategiak, 1. Telefonoa: 943 67 38 49.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

arregi

30.000 k. ed. 8 • 20100 TOLOSA  
Tel. 943 67 11 42  
www.arregi.org.es

Berehala, gabonetako eskaintza